



256. zenbakia

• Azaroa 2025 •

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Pailazo gaizto

Monster olerkiak, Bermeoko liburutegia

Pailazo, pailazo
non ezkutatu zara?
Laster zure bila
joango naiz,
salto eta salto
pailazo gaizto.

Pailazo gaizto
atean dago
eta puxika
haurrari lapurtu dio.

Pailazo gaizto
ile gorri,
begi zuri,
gaizto gaiztoa,
ezkutatuko
dizut aiztoa.



Hautatu



3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera



pulunpe



ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Denok Bat Elkarte, Ametza Kultur Elkarte eta Patxi Irurzun.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez.

TIRADA

1.700 ale.

INPRIMATEGIA

Gertu.

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa.

AZALEKO ARGAZKIA

Anueko Landa Eremuko Emakumeen egunean egina. Argazkiaren egilea: Isabel Oiartzun.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira azaroaren 7an bidalia.

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Dermatosi Nodular Kutsakorra (DNK)*

08

Kronika. *Denok Bat jubilatuen elkarte*

10

Albisteak.

14

Ekimenak. *Euskara gazteen gailur*



16

Ekimenak. *Ultzamaldekoko Gazteen I. Podcast lehiaketa*

20

Elkarrizketa. *Irati Gorostidi Agirretxe zuzendaria*

22

Aspaldiko kontuak. *Miguel Eugiri elkarrizketa (II)*

26

Zer ikusi. *amezti.eus-en*

28

Kirola. *Piriniotako Enduro*

30

Ardo freskoa. *Buru hitzaz zenbait gauza*

32

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*

34

Jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak. *Iraila*



Dermatosi nodular kutsakorrak (DNK) estualdian ditu Kataluniako abeltzainak

Europar lehenengo aldiz agertu da birus hau, eta, horregatik, neurri gogorak hartzen ari dira. Pertsonen ez die inongo kalterik eragiten, baina oso kutsakorra da behien artean, horregatik, ustiategi batean kasu bakar bat agertuz gero, behi guztiak hil behar dira, eta tokian erre. Katalunian 2.500 baino gehiago sakrifikatu dituzte, 18 agerraldi baino gehiago izan direlako. Frantziatik zabaldu da Pirinioen beste aldera, baina Euskal Herrian ez da kasurik agertu. Hegoaldean, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak feriak bertan behera utzi ditu, azaroaren 30era, gutxienez

Birusa ez da berria, 1929an jaso baitzen lehenengo aldiz. Baina Afrika Saharako hegoaldeko zonaldeetan zabaldu ohi da eta orain agertu da lehenengo aldiz Europan. Behiak kutsatzen ditu bakarrik eta sintomen artean: zailtasunak arnas aparatuan, ekoizpena jaisten da, apaltasuna, eta babak larruan, batez ere, bizkarrean, saihetsetan, muturrean eta mukosetan. Sardiniatik etorri eta Italian zabaldu zen; handik Alpe aldeetara salto egin eta Frantzia ere franko zabaldu da. Azkenik, Pirineoak ere igaro eta Katalunian estropezu handia eragiten ari da.

Urriaren 3an jaso zen lehenengo aldiz kasu bat Katalunian. Orduan 123 txekor hil behar izan ziren Alt Empordàko ustiategi batean, Gironan. Pulunpe ale honen itxieran (urriaren amaieran) 2.500 buru baino gehiago hil behar izan dituzte. Kaltetutako ustiategiak guztiz hustu dituzte, eragin ekonomiko larriekin. Adibidez, 270 behiko etxalde batean: hiru familieren ogibidea zen eta diru sarrerarik gabe gelditu dira. Hainbat hedabideri azaldu diotenez milioi bateko galerak izanen dituzte. Luis Mariñelarena, Lanzko herritarra, abeltzainekin lan egiten duen albaitaria da: "Gaitza honen kalterik handiena ez da pertsonendako ekartzen dituen ondorioak, baina ez zenez hemengoa, Europa gaitz honetaz libre zegoenez, eta hain kutsakorra denez, lehenbiziko mailan

dago (A kategorian)". Hau da, guztiz desagerraraztea lehentasunezkoa da eta horregatik agintzen da behi denak hiltzea, kasu bat atzemanaz gero. Mariñelarenak abeltzainarendako suposatuko lukeen ondorio ekonomikoa seinlatu du: "Ez zait bururatzen horretaz (abeltzaintzaz) bizi den ia-ia inor jarraituko lukeenik".

Hustutako ustiategiak, Katalunian

Aipatu bezala, ustiategiko animalia guztiak hil behar dira kasu bakar bat atzemanaz gero. Horrela gertatu zaie Alt Empordàko abeltzainei. Jaso zen lehenengo kasua Joan Lluís Gelabertena izan zen, Castelló d'Empúriesen.

123 txekor hil behar izan zituen. Zorionez, animalia gehiago ditu beste bi etxaldetan. Hori jaso da estatu mailan lehenengo kasu gisa, baina abeltzainak ez du ulertzen, ez omen baitu txekorrik erosten atzerrian. Luis Mariñelarenaren Kataluniako lagunek ere zalantzan jarri dute: "Kataluniako lagun batek esaten zidan ez zuela sinisten hori lehenengo kasua izanen zenik, animalia mugimendurik ez baitzen izan txekor etxalde horretan. Baina hor inguruan badago txekor mugimendu handia, batez ere Frantziatik ekartzen direnak, gizentzera. Gizentzeko tradizio handia baitago". Baliteke gizendegi horietako batean zabaltea, eta, hortik ondoko ikuluetara?



Luis Mariñelarena behi bati azazkalak moztzen



Izan ere, gerta litekeelako kasuren bat duenak isiltzea, animalia guztiak hiltzea saihesteko? Mariñelarenak jakiterik ez dagoela esan digu, baina ohartarazi egiten du: "Alferrik da, hori ezin duzu egin, bat baldin baduzu izanzen dituzulako gehiago eta hurrengo astean agertuko zaizkizu. Animalia bati birusa sartzen zaionean bost eta hamabost egunen artean egoten da inkubazio fasean". Hau da, sintomarik gabe, baina kutsatzen. Kasu bat atzemanen gero borobilean doazen hurrengo 20 kilometroak segurtasun gune gisa ezartzen da: "Animalien eta pertsonen mugimendua (ikuiluz-ikuilu ibiltzen garenona) debekatzen dute. Positibo ematen duen ikuilura ezin da inor sartu. Hortik beste 30 kilometro gehiago, borobilean, zaindu beharreko gunea deitzen dute".

Kataluniako zenbait abeltzainek salatu dute Espainiako Nekazaritza eta Abeltzaintza Ministerioak bizirik dauden animalien esportazioetarako mugak berandu itxi dituela. Urrian bertan egin du, Argelian, Marokon edo Europako herrialde batzuetan ekainetik egin zutenean, Italian kasuak agertu zirenean. Frantzia udan hasi ziren kasuak atzematen. Luis Mariñelarenak ez du argi: "Epidemiologikoki izugarritzko ikerketak egiten ari dira baina hainbertze foko dira. Horrek erran nahi al du toki batzuetan ez dutela sobera estutu? Sobera ikasi gabe gaitza zabaldu dute? Edo nahiz eta dena saiatu zabaldu da? Ez da erraza jakitea".

Diru-laguntzarik?

Gauzak horrela, Katalunian hainbat ustiategi hustu egin dituzte, hainbat familien sostengua. Eta, horregatik, izua zabaldu da sektorean. Mariñelarenari galdetu diogu laguntzarik izanen ote duten: Batzuek aseguro bat izaten dute gaixotasunendako. Baina DNK zehazki ez dago polizetan jasoa, gaitza ez zenez hemengoa, ez da jarri. Honen kategoriako beste bakarren bat, glosopeda edo sukar



DNKrekin kutsatutako esne behia ▲

aftosoa, bai. Europako gaitzak izan zirelako, gure gurasoek ezagutu zituzten. DNK seguruenik ez litzateke aseguroetan sartuko, dena geldituko zen Administrazioaren eskuetan". Baina Administrazioak muga handiak dituela uste du: "Gainera jartzen zara larriagoak izan diren gai batzuk begiratzen, Valentziako DANA, La Palmako sumendiaren leherketa eta horrelako gauzak eta jende aunitzek erraten du oraindik euro bat ikusi gabe dagoela, noraino izaten ahal duzu esperantza hori?".

Gotzone Sestorain, Makroetxaldean Aurkako Nafarroako Plataformako eta Habelarte Mendialdeko Baserritarren Elkarteko kideak diru-laguntzak miseriazkoak izaten direla adierazi digu. Plataforman ez daude ados hartu diren zenbait neurriekin: "Ez gaude batere ados hartu diren neurri batzuekin. Kasu baten ondorioz usteategiaren hustutze sanitarioa egitera behartzen zaituzte, hau da, animalia guztiak hiltzera. Gauza bera gertatzen da tuberkulosiarekin. Gu horrekin ez gatoz bat. Eta, gainera, uste dugu, planto egin beharko litzatekeela horren aurrean. Indemnitazioak miseriazkoak direnean gainera. Hauek kubritu beharko lukete abeltzainak berriro berritu ahal izatea lehengo kopuruetan daukan tropa osoa. Eta hori ez dute egiten. Beste toki batzuetan, Iparralden, esate baterako, ELB Sindikatuak sustatuta, zenbait etxaldetan buru guztiak aka-

batzen saiatu direnean, planto egin izan dute, tuberkulosia agertu izan denean. Nekazariak eta herritarrek, elkartuta. Eta igual hemen ere gauza bera egiten hasi beharko litzateke. Eta horrek ez du esan nahi ez litzatekeela neurriak hartu behar, neurriak hartu, bai, baina ezin da etxalde bat horrela suntsitu".

Mariñelarena albaitariaren hitzetan iradokitzen da, gainera, inbertsioak hain handiak diren honetan, abeltzainaren errekonposizioa kasik ezinezkoa egiten dela. Luis Mariñelarena: "Ni txikitan oroitzen naiz tuberkulosiaren lehenbiziko kanpainia egin zela nik 8 urte nituenean; eta etxeko behi guztiak kendu behar izan ziren. 24 burutik 21ek positibo eman baitzuten. Etxe guztietan antzekoa gertatu zen. Hiltegira eramaten zituzten – orduan hori onartu zen-. Baina orduan eman ziren diru-laguntzekin eta haragiko prezioarekin beste behi berri bat erosten zuten, normalean genetikoki hobeagoa zena, gainera. Ez zitzaigun gustatu eta ez zen samurra izan baina azkenean denok esan zuten hoberako izan zela. Baina noski, gaur egun gauzak oso ezberdinak dira, produkzio maila altuetara iritsi dira baina kostoak ere halakoak dira, eta oso estu dabilta. Orduan horrelakorik ailegatuko balitz, tokatzen zaionarendako betiko ixtea izanen litzateke". Hain zuzen ere, tuberkulosiarengatik, bere 90 animaliak hil behar izan zituen Bergarako Zezenak baserriak, urriaren 27an, tuberkulosi kasu batengatik.

Feriak, bertan behera

DNK momentuz, ez da Euskal Herrira iritsi eta horrela jarraitu dezan neurriak hartu ditu Administrazioak. Nafarroan urriaren 22an debekatu ziren abere feriak; eta, Euskal Autonomi Erkidegoan, berriaz, urriaren 24an. Tartean, penintsulako iparraldeko beste toki batzuetan neurri bera hartu zen, Aragoi, Kantabria, Asturias eta Galizian. Sektorearendako pena han-



Txekor bat txertatzen

dia da, bereziki, garai onak bizitzen ari zen momentu batean datorrelako krisi berri hau. Luis Mariñelarena: "Prezio onak zeuden merkatuan eta hainbatetan esan izan dugu gure artean, erdi txantxetan, ea zer datorren, gutxitan irauten baitute garai onak; eta, begira". Abeltzainen artean horrelakoetan susmoak ere agertzen direla aipatu digu al baitariak: "Batzuek ere esaten zuten, hau nahita egin dute! Nondik etorriko zen bestela. Baina ez da zaila ulertzea, hainbeste animalia eta jende mugimendua dago gaur egun... globalizazioak hori ere ekartzen du. Eta aldaketa klimati-koak kalteak areagotzen ditu. Birusa etorri eta hotzak harrapatzen badu, bost gradu zero azpitik, agian ez zen zabalduko ere. Baina bi gauzak dira". Gotzone Sestorainek ere beroketa seinalatzen du: "Xomorroak ugaltu egiten dira, ia negurik ez du egiten eta horrelakoak, ziur aski, gero eta gehiago izanen ditugu. Orduan prestatuta egon behar dugu horrelako egoeren aurrean. Baina etxaldean hustutze sanitarioak eta horrelakoak planteatu aurretik iruditzen zaigu badaudela beste neurri batzuk: kasuak lekutzen eta neurriak jartzen kontrolatzeko. Hustutzeak oso zorrotzak direla iruditzen zaigu".

“**Gotzone Sestorain,
Makroetxaldean
Aurkako Plataforma:**

**Neurriak hartu, bai,
baina ezin da etxalde
bat horrela suntsitu.
Planto egin beharko
litzateke**

”

Txertoak

Krisia gelditzeko esperantza txertoak dira. Katalunian 125.000 behi baino gehiago txertatu dituzte (urriaren bukaeran); eta, itxaroten ari dira Europako Batzordeak segurtasun guneetatik haratago txertoa jartzea onartu dezala, hau da, miloi erdi animalia jartzeari. Azaroaren hasierarako 250.000 txerto jaso beharko lirateke. Gainera, txertoarekin, buruen ehuneko altu bat txertatzen denean,

gaixotasunaren kategoria jaitsi liteke: "Kategoriaz aldatuko balitz ez lirateke behi guztiak hil behar; kenduko lituzkete bakarrik txertoa jarri ondoren sintomak dituztenak. Hori izanen litzateke aldaketa handia". Momentuz, baina, txertatzen dituenak, 21 egun itxaron behar du, inmunizatu izendapen hori jasotzeko, tartean buruen batek sintomak agertuko balituzke, kasu honetan ere, animalia guztiak hil beharko lituzke. Txertoa, gainera, Lanzko al baitariak azaldu digun bezala, birus biziko txertoa da: "Txertatutako behi bati analitika bat egiten badiozu eta positibo ematen badu ez dakizu txertoagatik den edo kutsatua dagoelako den". Eta horrek esportazioetarako muga izaten jarraituko luke, kategoria aldatuta ere.

Espainiako Gobernuak urjentziazko txerto gehiagoren erosketa iragarri du, 660.000 eurotan; eta, txertaketarako lurraldeak zabaltzeko eskaria ere egin du. Aragoien hasi dira jasotzen eskuratuko dituzten 80.000 txertoak. Frantzia, bestalde, ez da kasu berririk agertu urriaren 18tik eta, horregatik, bertako agintariek esportazioak berriz baimendu dituzte. Osotara 94 agerraldi izan dira bertan.

Minagin urdina

Euskal Herrira eta Mendialdera ere iritsi dena eta gogor jo duena, berriz, mingain urdina izan da. Luis Mariñelarena: "Uda latza izan da, sekulan ez dugu horrelako lanik izan udan, eta horretarako zen, ardiak salbatzeko, txertatzeko".

Gotzone Sestorainek ardiak ditu hain zuzen ere, eta gogor kritikatu du kudeaketa: "3.000 ardi hil direla kalkulitzen da eta, dermatosiarekin ez bezala, ez da txintik ere esan. Pentsatzen dugu azkenean merkatuak daudela, txekor eta behi bizi asko esportatzen da Espainiar Estatuarekin, eta gaitza asko zabalduko balitz, alarma horrek hainbat estatuk mugak ixtea eragingo

luke, eta horrek gastu batzuk ekartzen ditu. Mingain urdinarekin zer gertatzen da? Europa osoan dagoela hedatuta. Ez dago horrelako galerarik eta horregatik ez dute merkatu itxi beharrik. Orduan, merkatu arrazoiengatik izan daitekeela pentsatzen dugu. Baina ikuspegi sanitario batetik mingain urdinarena ere larria da eta ikaragarri gaizki kudeatu da. Abeltzainak gaitza gainean zegoela eta ardiak hildak ikusi dituztenean enteratzen joan dira. Ez da zabaldu ezta protokolorik ere, desastre bat izan da. Oso larria da. Abisatu izan balute jendeak etxaldetan neurriak hartu izanen lituzke. Lotsa-mangarria iruditzen zait".

“Natura betean konektatua”

Funtsezkoarekin konektatzea eta ekitea.
Denbora, lasaitasuna eta askatasuna
irabazi.

Hori eta askoz gehiago da herria.



Herria,
desira leku
Herrian dago bilatzen duzuna

Informazio gehiago



Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



NAVARRA † **NAFARROA**

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua

Benidormera bidaia eta Elizondoko feriak

Azken hilabeteen eskualdeko Denok Bat jubilatuen elkarteak egin dituen ekimenen berri emanen digute kolaborazio honetan. Ez dira geldirik egon: Benidormera bidaia, Elizondoko ferietara ateraldia, Belatera egindako irteera

Ohiturari jarraituz, urrian, Benidormeko bidaia egin genuen, opor giroan pasa genituen hamar egun eder, eguraldiak lagunduta. Gure ki-deekin taldea gutxieneko kopurura iristen ez zenez, Gurbindok Lizarraldeko jubilatuekin osatu zuen taldea, bidaia egin ahal izateko.

Azken urteetan bezala, Los Alamos hotelean hartu genuen ostatu, beti bezain zerbitzu onarekin. Nabarmenezkoa da hondartzatik eta hainbeste bisita jasotzen dituzten erdiguneko karriketatik duen hurbiltasuna, abantaila handia izanez guretzat.

Urrian badugu beste ohitura garantzitsu bat ere, Elizondoko feriak. Aurtengo edizioa berezia izan da, gainera, behie eragin dien dermatosi nodular kutsakorragatik plazan azienda erakusteko ezohiko debekua ezarri zutelako. Hala ere, Elizondoko kaleak bisitariz bete ziren eta bertako produktuak, artisautza eta elikagaiak saltzeko 200 postu ezarri zituzten.

Aziendarik egon ez arren, gainerako programazioa bete zen: gazta lehiaketa, nekazaritza merkatua, makina erakustaldia eta euskal pilotari eskainitako ostiral arratsaldea, herriko frontoian. Laugarren ardi gazta lehiaketan Azpilikueta Gasna izan zen irabazlea, Etxelekua eta Utxama atzetik zituela. Nabarmenezkoa, epaimahaia publikoa izan zela, dastaketa herrikoi baten bidez.



Talde argazkia, autobus eta txoferrarekin



Baratza lantzeko egokia ote da?





Eguerdiko ordubiak aldean, autobusez bazkaltzera joan ginen, Etxalar-ko bentara. Urtero bezala bazkari bikaina eman ziguten, guretzat prestatutako jangela berezi batean.

Bazkal ondoren, mus partidak eta paseotxoak egin ziren, eta elkarrekin egoteagatik alai eta irrifartsu, gozatuz pasatu genuen arratsaldea. Ilunabarrean, berriz autobusa hartu eta etxera itzuli ginen, datorren urtean errepikatzeke asmoarekin.

Urriko paseotxoak Belate ingurura izan da. Inguru hartan "turbera" eta erromatarren galtzada ikusi genituen, jakintsuek diotenez, Belateko zohikaztegia (turbera) zientzia- eta ingurumen-balio handiko erlikia naturala da, eta biodibertsitatea, memoria ekologikoa eta karbonoaren eta uraren zikloan funtsezko funtzioak betetzen ditu.



Era bat gazteturik, etxera bidean ▲

Mendi ibilaldiko partaideak Txarutara joan ziren, Belateko gaztelu zaharra ikusi, Txaruta tontorrera igo eta handik Garmendia gaina egin ondoren, buelta egin zuten.

Oinez bi taldetan banatu arren, bazkaria elkarrekin egiten da. Oraingoan, Goikan jatetxean, Ultzamako poligonoan egin zuten otordua.

Hurrengo hilabetean Pasaia joango gara Alabaola ikustera. Mendi ibilaldia Leurtza inguruan egiten da, eta Orgiko basoa ikustera ere gonbidatu gaituzte. Hurrengo Pulunpe aldi-zkarian emanen dizuegu horien berri. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.



Denok Bat
Jubilatu Elkartea



Valle de Odieta makroetxaldeko bi zuzendari zigortu dituzte, ingurumenaren kontrako delituengatik

Caparrosko kooperatibak ingurumenaren kontrako delitua egin duela batzi dute, Aragoi ibaira gai toxikoak isurtzeagatik, besteak beste. Alberto Guerendiain Azpiroz eta Pedro Jose Guerendiain Azpiroz odietarrak dira zigortuak: urtebeteko kartzela zigorra ezarri diete, 4.200 euroko isunak ordaindu beharko dituzte, eta hamalau hilabetez ezingo dute abeltzaintzarekin lotutako lanik egin.

Iruñeko Zigor Arloko 2. Epaitegiak urtebeteko kartzela zigor bana ezarri die ingurumenaren kontrako delituengatik. 2021ekoak dira gertakariak, eta irailaren hasieran hasi zen epaiketa. Epaileek ebatzi dute baimenik gabeko ureztatze sistema bat erabili zuela enpresak, baita Aragoi ibaira isurketa kutsagarriak egin zituztela ere.

Izan ere, enpresak ingurumen baimen bat du, zehazten duena nola ureztatu behar diren makroetxaldearen ondoko lursailak. Horren arabera, enpresak soilik zisterna kamioiekin ureztatu zezakeen, baina aspertsore mugikorren bidez ureztatzen zuten, baimenik eskatu gabe. Gainera, makroetxaldearen inguruan kontserba-

zio bereziko eremu bat dago. 2021eko urtarrilean ureztatu zuten, eta epaiaren arabera, ez ziren moldatu une hartako baldintzetara. Euri askoko egunak izan ziren, eta epaileek ebatzi dute digestatza zuen ureztatze hori Aragoi ibaira iritsi zela, baita bertako putzu batera ere.

Europako behi haztegi handienetako bat da Valle de Odieta Caparrosen duena, eta Noviercasen (Soria, Espainia) beste makroetxalde bat eraikitzekeko proiektu bat zuen, 20.000 abelburu hartzeko adinakoa. Hala ere, duela bi aste Espainiako Auzitegi Gorenak atzera bota zuen Valle de Odietak jarritako helegitea, eta berretsi egin zuen proiektuari emandako ezezkoa. Hala ere, ebazpen hori ez da behin betikoa. Hori atzera bota badiote ere, Caparrosoko haztegia handitzeko proiektuari baiezkua eman zion Nafarroako Gobernuako Landa Garapeneko Departamentuak; hori dela eta, Greenpeacek eta Sustrai Erakuntzak gobernuaren «konplizitatea» salatu zuen egun hartan. Bi talde ekologistak izan dira azken epaiketa honetan herri akusazio gisa aurkeztu direnak.





*Euskararekin
gora eta gora beti!*

**AZAROAREN 7tik
ABENDUAREN 14ra**

60 ekitaldi baino
gehiago, Nafarroako
txoko guztietan, haur,
gaztetxo eta familientzat,
**Euskararen Nazioarteko
Eguna** ospatzeko.

Errauskine rock

AZAROAK 9

IRURTZUN

17:30ean kultur etxean

***Ez dakizu nola tratatu?
Azalduko dizut***

ABENDUAK 5

LARRAINTZAR

19:00etan Larraintzarko Benta gizarte etxean

Gobierno
de Navarra



Nafarroako
Gobernua



euskara**bidea**

EGITARAU
PROGRAMA



NAVARRA : NAFARROA

Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



Beñat Senosiainek Euskadiko Aizkolari Gazteen txapela eskuratu du Balmasedan

Urriaren 26an izan zen txapelketa, Balmasedan, eta lanak lehenengoa bukatzen Beñat Senosiain olaguear gaztea izan zen. Eta, hirugarrena, Markel Iturralde beuntzarra.

Bi kanaerdiko eta 45 ontzako lau enbor moztu behar izan zituzten eta 13 minutu eta 55 segundoan amaitu zituen lanak Senosiain Olagueko (Anue) aizkolari gazteak. Atzean utzi zuen Jon Zaldia zumarragarra, ia bi minututara (15:34). Ondoren, Markel Iturralde (18:29), Unai Valverde (19:41) eta Jakes Iruretagoiena –Izeta V– (21:53) izan ziren.

Senosiainek esan digunez oso-oso pozik dago eta ez da gutxiagorako. Gainera, abuztuan Nafarroako hirugarren mailako txapela irabazi zuen 17 urteko gazteak. Horrela, bigarren mailan arituko da datorren urtean.

Aipatzekoa ere bada Markel Iturralderen lana, Beuntzakoak (Atetz) lehen aldia zuen txapelketan eta, hala ere, hirugarren postua lortuz, podiuma egin zuen.



Zorionak Zorionak!

Zorionak, Telmo eta Danel!
4 urte, azaroaren 19an!



Dimar Jaunsaras
Echeonanearen urteak
izan ziren azaroaren 5ean,
zorionak!

Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com




OHARRAK - GALDUTAKOAK

Urriaren 7an Orkingo behi etxalde baten inguruan **errifle baten bisorea** galdu zuten, argazkikoaren antzekoa. Norbaitek aurkituko balu, ondoko telefono zenbaki honetara deitzea eskatzen du jabeak: 618 963 156. Eskerrik asko.






HEMENGOA, ZURETZAKO





**Kontsumitu eta saldu Km0
Nafarroako elikagaiak, Nafarroan**

www.localtokikoa.es



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua 

 INTIA

948 013 040
circuitoscortos@intiasa.es

NAVARRA ‡ NAFARROA
Una forma de funcionar | Our own way | Gauzak egiteko dugun modua



Nafarroako mendialdeko gazteak Ireberren elkartu ziren euskararen alde

Urriaren 4an Nafarroako mendialdeko hainbat herrietako gazteek ekimen bateratua egin zuten, euskararen alde. Mendi martxa egin eta gero, Berueteko Ireber mendian elkartu ziren guztiak. Egun horretan bizitakoaren kronikatxoa bidali digute parte hartzaileek



Eguerdiko 12:00etan elkartu ziren Nafarroako mendialdeko gazteak Ireberren. Hamaika bide dituen mendi ederra dugu Ireber, eta urriaren 4an Leitzatik, Aldaztik eta Beruetetik igo ziren bertara Basaburuko, Larraun-Lekunberriko, Araitz-Beteluko eta Leitzako gazteak.

Basaburutik 17 gazte bildu ziren goizeko 10:45ean Berueteko plazako hitzorduan. Han, kotxeetan antolatu eta Oringo iturrira hurbildu ziren. Kotxeak utzi, iturriko ur freskoz hornitu eta 11:00etan ekin zioten mendi martxari basaburuarrek.

Araitz-Beteluko eta Larraungo gazteak Aldazko plazan elkartu ziren goizeko 10:30ean, eguzki argi politak herriari distira ematen zion momentuan. 16 lagunek hasi zuten ibilaldia Larraungo herri horretatik.

Azkenik, Leitzako gazteak, 14 zehazki, goizeko 9:00etan elkartu ziren hango Torrea ostatuan. Azken xehetasunak zehaztu, ur kantinplorak bete eta urrunean ikusten zen Ireber mendira igotzen hasi ziren.

Tontorra elkargune

Eguerdiko 12:00etan iritsi ziren Ireberko gailurrera hiru abiapuntuetatik abiatutako gazteak. Goian, bakoitzak bere hamaiketakoa atera eta bista ederrez gozatzeko aukera izan zuten. Mokadua bukatutakoan, "Euskara Gazteon Gailur" lemapean argazkia atera, Ireberri agur esan eta tontorra jaisteari ekin zioten. Batzuk kotxez bueltatu ziren, baina gazte animatuenak, berriz, oinez egin zuten buelta.



Mendi martxari amaiera emateko, arratsaldeko 15:00etan bazkaria egin zuten gazteek Uitziko Merkualde elkartean. 42 gazte elkartu ziren bazkarian. Zizka-mizkak, paella eta postrea izan zituzten menu, eta gainera, aisialdi eskaintza moduan, bingoa prestatu zuten lau sari desberdinekin: lehenengo hiru bingoetan bazkaria doan izatea zen saria,



eta azken bingoan, berriz, soberan gelditutako paella etxera eramateko aukera. Bide batez, eskerrak eman nahi izan dizkiote gazteek Uitziko Merkualde elkarteari.

Euskararekiko konpromisoa

Mendi martxaren helburua eskualdeko gazteek euskararekiko duten maitasuna adieraztea zen, baita euskarak berarekin dakarren herria eta kultura errespetatzeko eta zaintzeko konpromisoa hartzea ere. "Finean, euskarak egiten baikaitu herri", azaldu dute. Eta honakoa gaineratu: "Ireberko gailurra euskaraz estaltzea lortu genuen gazteok, eta bertatik eskualde eta herri guztietako txokoak euskararekin bustitzea".

Egunarekin bukatzeko, Kattalin Lizarraga bertsolari leitzarrak egin-dako bertso hunkigarri eta motibagarria entzun zuten, mezu argi batekin: Ireberretik euskara beste hamaika gailurretara eramatea. Hona hemen Lizarragaren bertsoa:

*Etzen simplea goizeko plana
eta hala ere hara!*

*Uste nittunak baino gehiago
hurbildu gara bertara,
Eta diot lehenbailen,
ze iruitzen beste baten,
berriz elkartzen bagara
beste hamaika gailurretatik
zabal dezagun euskara.*

Doinua: Iparragirre abila dela.



errigora.eus



urriak 23 - azaroak 13

Eskatu **Nafarroa erdi eta hegoaldeko** produktuz beteriko saskiak eta eman balioaren **%25 zonaldeko euskalgintzari**



Ultzamako gazteek sormena euskaraz lantzeko aukera ederra, sari bikainekin

Ultzamaldeko Euskara Mankomunitateak, Ametza Kultura Elkartek eta Esan Erran Irratiak Gazteendako I. Podcast lehiaketa antolatu dute elkarlanean. 12 eta 30 urte bitarteko Ultzamaldeko gazteek izanen dute parte hartzeko aukera, eta hiru sari eder banatuko dira: 400 euro lanik onenarendako, beste hainbeste lanik originalarendako, eta grabaketak egiteko kit-a teknikoki lanik onenarendako

Gure eskualdean horrelako lehiaketa bat antolatzen den lehenbiziko aldia da, eta antolatzaileek nabarmendu dute gazteen artean sormena eta euskara bultzatzeko helburuarekin abiatu dutela. "Iaz bertan behera utzi genuen Gizarte Zerbitzuen mankomunitateak eta Euskara mankomunitateak antolatzen genuen LarunbatERO aisialdiko programa, eta egoera horretan, pentsatzen jarri ginen gazteen arloan zer egin zitekeen", azaldu du Ariane Usarbarrena euskara

teknikariak. Teknologia berriekin lotutako zerbait erakargarria izan zitekeelakoan, podcast lehiaketaren ideia etorri zitzaion burura.

Arlo digitalean erreferente euskaldunen beharra

Gazteak mundu digitalean euskaraz parte hartzera bultzatu nahi ditu ekimenak, garrantzitsua baita alor horretan ere euskararen presentzia bermatzea eta erreferenteak sortzea. "Beti esaten dugu mundu

digitalean erreferente euskaldunak falta ditugula, bada, nork daki, etorkizunean gazte erreferente euskaldunak sortzea bultzatu dezake horrelako ekimenek", gehitu du teknikariak. Sormena lantzea ere bada proiektuaren helburua, eta baita tokiko hedabide euskaldunekin harremanak bultzatzea ere. "Batek daki, Esan Erran irratiako kolaboratzaile berriak lortu genitzake, agian!", diote bultzatzaileek.





Podcast lehiaketa sei puntutan

- 12 eta 30 urte bitarteko Ultzamaldeko gazteei zuzendua.
- 15 eta 30 minutu arteko podcastak.
- Euskara hutsean ekoitziak.
- Oinarriak kontsultatzeko: iparmank.eus eta amezti.eus.
- Lanak aurkezteko epea: azaroaren 17tik 30era (biak barne).
- Nola aurkeztu: gazteenlehiaketa@gmail.com helbidera bidalita.

Bestalde, ahozkotatzen lantzeko podcastgintza bide aproposa izan daitekeela uste dute lehiaketaren bultzatzaileek. "Gai baten bueltan hitz egin beharko dute parte hartzaileek, gidoia sortu, zer eta nork kontatu erabaki... mila gauza landu daitezke, bai", dio Usarbarrenak.

Gai librea

Esan bezala, 12 eta 30 urte arteko Ultzamaldeko gazteek izanen dute

lehiaketan parte hartzeko aukera. Gaia librea da, baita formatoa eta edukia ere. Musika, kultura, literatura, aisialdia, gazteak, ekologia... norbere interesei bide emateko aukera izanen dute podcast bakoitzaren egileek. Bestetik, bakarka nahiz taldean aurkeztu daitezke lanak. Hori bai, ezinbestekoa izanen da gazteak eskualdekoak izatea: Larraintzarko edo Jauntsarasko ikastetxe publikoan ikasitakoak edo ikasten ari direnak izatea edo Imotz, Basaburua, Ultzama, Atetz, Anue, Odieta edo Lantzko udalerrietan erroldatuak egotea.

Iraupenari dagokionez, gutxienez 15 minutu eta gehienez 30 iraun dezakete podcastek, eta aurretik inon argitaratu gabeak izan beharko dute. Azaroaren 17tik 30era bitartean (biak barne) bidali beharko dira lanak gazteenlehiaketa@gmail.com helbidera. Dena dela, lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintza eta oinarri guztiak ondoko dokumentuan kontsulta daitezke: <https://labur.eus/podcast-lehiaketa>.

Zer baloratuko da?

Jasotako lanen artean, hizkuntzaren egokitasuna, originaltasuna, sormena eta lanaren kalitate teknikoa baloratuko dira, orokorrean. Euskara maila minimoa ez dutenak

“Garrantzitsua da alor digitalean ere euskararen presentzia eta erreferenteak bermatzea”

eta giza eskubideak eta bizikidetzako balioak errespetatzen ez dituztenak lehiaketatik kanpo geldituko dira. Hiru sari modalitate banatu dituzte podcast lehiaketaren antolatzaileek:

- Lanik onena: aipatutako elementu guztiak kontuan izanda, hobekien baloratzen den podcasta.
- Lanik originalena: originaltasuna eta sormena baloratuko da sari honetan.
- Teknikoki onena: edukiari hainbeste begiratu gabe, alde teknikoa baloratuko da.

Lehen bi modalitateek 400 euroko saria izanen dute, eta hirugarrenak, berriz, grabaketak egiteko kit-a. Hiru modalitateetako podcastak, gainera, Esan Erran irratiaren emitituko dira, eta Pulunpe aldizkarian ere eskainiko zaie irabazleei tartea.

Honela luzatu die eskualdeko gazteei parte hartzeko deia: "Aukera paregabea dutela esanen nieke, nahiko modu askean, gaia haiek erabakita, sari eder bat irabazteko. Horixe, beldurrik ez izateko esanen nieke, animatzeko, haien ahotsak, iritziak eta gogoetak entzun nahi ditugula, eta horretarako podcast bat egitea abentura polita izan daitekeela", gaineratu du euskara teknikariak.






Goldarazko pestetan



Kontzertu lirikoa Gaskueko Santurbe basilizan, Odietan, urriaren 5ean. Victor Castillejo tenorra eta Dorota Grześkowiak soprano, Daniel Gutierrez pianoan eta Mario Gutierrez bibolinarekin



Larrintzarko Anaitz Arbilla, Eibarko jokalaria, Ultzamatik joandako herritarrekin



Beramendiko pestak 25



Goldarazko haurrak puzgarrietan jolasean, pestetan



60 herritar joan ziren Eibar-Castellon partidara, Anaitz Arbilla ultzamar futbolaria animatzera



Irati Gorostidi

Agirretxe zuzendaria

“Deigarria egin zitzaidana izan zen, hain justu, Ultzaman, 80. hamarkadan, horrelako zerbait imajinatzea”

Aro Berria, Arco Iris Lizasoko komunitatearen esperientzia kontatzen duen pelikula, zinema aretoetan estreinatuko da azaroaren 28an. Horrela, Irati Gorostidi Agirretxe zuzendari nafarrak fikziora eraman du *San Simon 62* dokumental laburrean bildu zuen ikerketa. Pelikulak Donostiako Zinemaldian aipamen berezia jaso du zuzendari berrien atalean

San Simon 62 labur dokumentalean Mirari Etxabarrirekin batera Lizason (Ultzama) 80. hamarkadan gazte talde batek sortutako komunitateaz hitz egiten zuen. Handik pasatu ziren bien gurasoak eta laburmetraian historia hori osatzeko egindako ikerketa bildu zuten. Hori izan zen *Aro Berria* pelikula kaleratu arte egindako bidearen lehenengo pausua, Gorostidik hasieratik argi baitzuen fikziozko pelikula bat izanen zela helmuga. Tartean, *Contadores* laburmetraia izan da bide horretako beste geldialdietako bat. 2022an estreinatu zen eta Gipuzkoako fabrika bateko langile talde baten borroka azaltzen du.

Orain, *Aro Berria* pelikula kaleratu da eta azaroaren 28an iritsiko da zinema aretoetara. Aurretik, Donostiako Zinemaldian estreinatu da eta, bertan, Kutxabank-New Directors ataleko aipamen berezia jaso du: “Historiako garai errepikaezin baten esperientzia sexuala eta politikoa ausardiaz iker-tzeagatik”, epaimahaiaren hitzetan. Pelikulaz, prozesuaz eta Zinemaldian bizitakoaz hitz egin dugu Irati Gorostidi Agirretxerekin.

Azkeneko asteak ero samarrak izanen ziren. Nola bizi izan duzu gertatu zaizun guztia?

Bai, aste eroak izan dira eta pelikularekin oraindik ibilbide luzea gelditzen zaigu, espero dut. Emozio asko izan ditugu, baina oso ederrak. Pelikulari egin dioten harrera oso polita izan da

“**Lan egiteko
beste modu bat
interesatzen zait,
bilaketa batean
egotea**”

eta aipamen berezi hori, sorpresa. Pozik nago.

Esperimentazioa, errealitatea eta fikzioaren arteko jolas hori saritu dute.

Horri balioa ematea oso garrantzitsua da niretzat, benetan sinisten dudalako bestelako lan metodologietan eta asko gustatzen zaizkidalako lengoaia berrietan ari diren pelikulak, gehien maite ditudanak dira. Arrisku handiak hartu ditugu pelikulan, eta prozesuan, batzuetan, zaila izan zait horiek defendatzea. Beraz, aipamen hori jasotzea oso garrantzitsua izan da.

Aro Berria izan da, gainera, zure lehenengo luzemetraia. *San Simon* eta *Contadores* laburmetraiekin hasitako bidaia horretan sakontzea izan da, nolabait?

Bai, hori da. Ia hamar urte daramatzat Arco Iris komunitatearen inguruan ikertzen eta prozesu horretan argi



Irati Gorostidi. Argazkia, Ulises Proust. Donostiako Zinemaldia ▲



nuen horrelako fikziozko pelikula luze bat egitea izanen zela helmuga. Baina, niretzat oso garrantzitsua da ikerketa hori teorikoa bakarrik ez izatea. Zinemaren proiektuaren fase horretan, askotan, gidoia edo dossierrak idazten aritzen gara, hau da, mahai batean, eserita, ordenagailuaren aurrean. Niretzat oso garrantzitsua izan da ikerketa prozesu horretan lan praktikoagoa ere egitea.

Aro Berriaren gidoia idatzita zegoenean egin genuen *Contadores* laburra. Bestalde, *San Simon 62* dokumentalean Arco Iris komunitatean zentratu ginen, eta hor bildutako materiala oso garrantzitsua izan da pelikula sortzeko. Nik esango nuke laburmetrai horiek pelikularen parte bat direla nahiz eta lan eta pelikula ezberdinak izan.

Nola izan da luzemetraiara eta fikziora pasatzea?

Salto handia izan da, eta oso gozagarria. Lan talde handia izan da eta koordinazio asko eskatu du, aurretik gauzak planifikatzea, ni ohituta nagoena baino gehiago. Bestetik, gauzek irekiera mantentzea asko gustatzen zait. Fikzioan, gidoi batean plano bakoitza idatzita duzu, pelikula hori materializatzea da kontua. Baina, niri lan egiteko beste modu bat interesatzen zait, prozesuan zehar bilaketa batean egotean datzana. Bilaketa hori lantalde osora ireki nuen, kasu

honetan. Ikerketa haiekin partekatu eta artxibo historikoekin jolasten eta hortik egoerak sortzen aritu gara, eta egoera horietatik abiatuta joan gara pelikula eraikitzen. Alde inprobisatua goa dauka lan egiteko modu horrek, eta ez genekien zehazki emaitza zein izango zen. Dokumentalgintzan askoz ere ohikoagoak dira lan metodologia hauek, baina fikzio batean zaila da horrela lan egitea. Baina, aldi berean, oso interesgarria da hori niretzat, bat-batean beste dimentsio bat hartzen du lanak. Hori izan da konplexue-na, baina baita interesgarriena ere.

Langile mugimendua, komunitatean bizitzea, zergatik interesatzen zaizkizu gai horiek?

Gai horiekin prozesuan zehar topo egin dudala esango nuke. Abiapuntua argazki batzuk izan ziren, Arco Iris komunitatean ateratakoak. Etxean galdezka hasi nintzen eta aitak liburu bat eman zidan, argazki batzuekin, pelikularen kredituetan agertzen direnak. Argazki horiek jakin-mina eragin zidaten eta horrek eraman nau pelikula egitera: Gorputzak ikusten ziren, erdi biluzik, izerditan, trantzean sartuta. Irudi horiek testuinguru batean kokatzea niretzat oso garrantzitsua zen. Azken finean, Arco Iris bezalako komunitate asko egon dira, 70. hamarkadatik, herrialde ezberdinetan. Baina, niri deigarria egin zitzaiz-

dan justu Ultzaman, 80. hamarkadan, horrelako zerbait imajinatzea. Gurasoen belaunaldiko jende gazte asko, frankismoaren ondoren horrelako prozesuetan sartu zen. Arco Iris komunitatetik milaka pertsona pasatu ziren. Orain, pelikula kaleratzean, jende asko gerturatu zait handik pasa zela esanez.

Eta langile mugimenduekin egin zenuen topo?

Arco Irisetik pasa ziren pertsonen testuingurua oso ezberdina da, baikoitzarena desberdina. Gazteak ziren, frankismoan jaioak eta besterik eza-gutu ez zutenak, hori zuten elementu amankomun. Baina, pelikula batean oso gauza zehatzetan jarri beharra dago arreta nire ustez, abstrakzio-ko zinema ez da tresna oso egokia. Horregatik, gertu neukan ibilbide bat ikertzea erabaki nuen, nire gurasoena eta inguruko lagunena. Langile mugimendutik eta militantziazatik iritsi ziren komunitatera, momentu zehatz batean, dezepzio momentu batean. Frankismoaren azken urteetan langile mugimenduak indar handia zuen, eta Gipuzkoako lantegi batean zentratu naiz ni, han langile mugimendua oso modu asanblearioan antolatua zegoen, auzo komiteen bidez. Hau guztia ikertzen ikasi dut eta sorpresa izan da. Frankismoaren amaierarekin ez zen espero zuten aldaketarik etorri, eta dezepzio horretan, urteak zeramatzatzen imajinatzen nola harremandu nahi zuten, nola bizi nahi zuten sexualitatea... hori izan zen Arco Iris komunitatearekin harremanetan jarri ziren momentua.

Erakusketa

San Simon 62 erakusketa, Tabakalera (Donostia).
Urtarrilaren 6ra arte.
Pelikulatik kanpo gelditu den materialarekin.





Miguel Eugi Ziganda,

Petreneko semea (II)

Iturbidean bizi da Aliciarekin

Soldadutza bukatu eta Beuntzara, sortetxera. Bazuen herriarenganako maitasuna Migelek, bai horixe! Jolasean hasia aski da beuntzar peto-petoa dela igartzeko. Eta Beuntzan geldituko zen bizitzen, oztopo guzien gainetik

Soldadutatik itzuli eta berriz kisuskil lanetan

Berriz ere lanean kisuskil, mutil, baina laster hasi nintzen nire kontu lanean, gehienbat alikatadore (alikatatzaile). Batzuetan bakarrik, baina gehienetan besteren batekin edo besteren batzuekin, obraren arabera. Batean bi lagun, bestean hiru lagun. Bortz lagun ere aritu izan gara. Etxebizitza asko bazen batean, gehiago, jakina.

Beuntzako ihoteak, bestak eta beste

Beuntzan ere izanen hituen ihoteak. Hi ez hintzen ihoteetan ibili, baina ezagutu bai.

Bai, hala da. Maiordomo eta mutil-nagusiaren etxean egiten zituzten. Nik hiru etxetan ezagutu nituen: **Aimenean, Xualdenean eta Bastallenean**. Azken hauetan bi urtez segidan. Ihote politak egiten zituzten. Lehen egunean etxez-etxe ibiltzen ziren mutilak beren soinu-jotzailearekin, puska biltzen (urdaia, txistorra, arroltzeak...) Bigarren egunean ere etxe guzietara, baina neskak izaten ziren etxeetan oiloa ematen zuten. Haga luze batean eramaten zituzten, zangotik lotu eta buruz behera. Eta egun hartan elkarrekin afaltzen zuten neska-mutilak, afaria mutilen kontu. Oso polita izaten zen. Nik hamahiru-bat urte izanen nituen bukatu zirenean. Pena ikaragarria

nik! Mutil gutxi gelditu zen, batzuk Frantziako oihanetara lanera, beste batzuk Iruñera, eta, asko, Ameriketara artzai... Azkeneko ihoteak bukatu eta joan zen Ameriketara

Tomas Nazabal. Ai, nolako pena!

Baina, geroztik ere egin izan dituzue ihoteak

Beuntzako ihoteak bukatu eta urte



Hemen ditugu Migel eta Alicia senar-emazteak



batzuetara bailara mailan hasi ginen ihoteak egiten. Eritzen egiten genituen, ostiralez hasi eta igandean akabatu, Eritzeko eskola izandakoan.

Lehen egunean soinua hartu eta Atezko herri guzietatik pasatzen ginen puska biltzen. Ondoren, aunitz biltzen baikenuen, 10 afari igual egiten genituen, 10 asteburuz. Oso ongi, oso ongi. Ba, oraindik ere segitzen dute ihote horiekin.

Miel, eta bestez, zer diok?

Bestak *Amabirjin abutzukoan* egin izan dira beti. Hamalauan hasi, bezperatik, eta gero hiru egun. Ostiralekin bukatzen baziren, hurrengo larunbata ere besta izaten genuen, afari batekin bukatuz. Horretarako axuri bat zozkatzen genuen, dirua ateratzeko.

Soinua herriak pagatzen zuen, gehienetan *jazbana* izaten genuen, soinua, sasofia eta bateria.

Goizean goiz, erronda edo karri-

kadantza, etxe guzietatik pasatuz, eguerdian plazan soinua eta dantza, eta gero arratsean, berriz atzera gauza bera. Afal ondoren, berriz, dantza, goizaldeko biak artio edo.

Bestak antolatzeke mutil-nagusirik izaten zenuten?

Ez, ez, ni gaztettoa nintzenean bai, baina nire mutil denboran ez. Gazte batzuen artean antolatzen genituen, zer-nola egin.

Elizako zenbait ohitura eta beste jaiegun batzuk

Garizuma, 40 egunez eta gero Aste Santua. Musika debekatua, irratia ere bai...

Bai, arrosarioa ondoren *gurutze-bide* egunero. Eta gogoan dut nola jartzen zen ostiral santuan belatorioa (*Jankoai kasu ittea*, esaten zen euskaraz oraindik mintzatzen zen herrietan)

Hori ere oso polita zen. Neskatzak arratsaldean, elizkizun bereziaren ondoren egiten zuten Belatorioan beren txanda eta gero, gaueko hamarretatik aurrera, mutilak.

Aste Santuan mutikook karrakak ere jotzen genituen, herria goitik behera den-dena pasa artio. *Luzia da gero Beuntze, e!*

Eguberrian zerbait berezi egiten zen?

Bai, **Urteberritan**, etxez etxe, eskean ibiltzen ginen ume eta gaztetto guziak. Eta, ordurako erdara sarturik zegoen eta erdaraz kantatzen genuen:

Angelicos somos
Y del Cielo bajamos
Si no nos quieren dar
Las puertas romperemos.

Oharra: Nonbait gure alderdian arrakasta handia izan zuen kantu honek Ultzamako herri batzuetan bederen entzun izan baitugu.

Eta Erregetan?

Joaleekin ibiltzen ginen herri guzia korrituz. Zalapartaka. Gero zapata leihoan jarri eta ...

Herrietako bestak. Eta, neguan, "Mailloak", dantzalekua

Bai, udan, igandez, gehienetan hurbileko herrietako bestetara joaten ginen (Beratsainen ez zuten bestarik egiten, Eritzen ere ez. Ondoren hasi ziren. Eta Eguaratsen ez dut bestarik inoiz ezagutu).

Eta neguan, Azpirozko gainean ireki zuten dantzalekura, *Malloak* famatura. Autoa banuen eta igandero joaten nintzen. Pena handia izan nuen soldadu joan behar izan nuenean: urte oso bat Malloetara joan gabe egon beharra!



▲ Zamargiñenea, goitiko barridean, ezkerrean. Etxe honetan bizitu zen Migelen ama, Isidra Ziganda. Ezkondu ondoren pasatu zen berea zuen etxera, Petrenera (Behitiko barridean)



▲ Beuntzako eliz ederra, Apezetxea atxikia duena (hemen bataiatua zen Isidra Ziganda eta hemen bataiatu zituen bere bortz haurrak)

Beuntzako beste zertzelada batzuk

Herriko gaztainak ere ba omen hituen Beuntzan

Bai, bai, bi tokitan, gaztainadia bat **Minttegin** eta bestea **Ezkerneko** borda ondoan. Nik ez nuen ezagutu, baina gure aitaren denboretan bai: familia batek edo bien artean hartu eta gaztainondoak husten zituzten, gero pikorra Iruñean-edo saltzeko. Nire denboran gaztaina saltzen ez dut ikusi.

Mintegia aipatu duk. Bada hor zerbait hertsia?

Bai, hor bada harrizko hertsia. Gaztainak bildu eta hor montontzen zituzten, morkotsean.

Alicia, emaztea ere hurbilean dugu eta berari galdetu diot bere bizitzaren berri laburra. Hona zer dioen:

Alicia, noiz eta zergatik joan zen zure familia Frantziara?

Belgika ondoko herri bateko fabrika batean torneroak (tornulariak) eta fresadoreak (fresatzaileak) behar zituztela eta gure aita eta beste 13 lagun, denak Imenasan lanean ari zirenek ikasi, eta galdezka hasi ziren, zenbateko soldata irabaziko zuten, bizitza bakarreko etxe bana izanzen zutela... eta animatu eta denak joan ziren bertara bizitzera. Herri hori Dourlers zen eta Lille du hiri handia, franko hurbilean.

Nik hamaika hilabete nituen eta lau anai-arreba nituen. Han, Frantzian, beste bi senide gehiago izan nituen.

Ikasketak bertan egin nituen eta 18 urtetan, familia ia osoa, bi gazteenak ezik, itzuli ginen Iruñera.

Alicia, zenbat ume izan dituzue?

Bi, zaharrena Mikel, 33 urte dituen, eta Joana gazteena, 30 urtekoa.

Koru bat ere sortze lanean buru-belarri ibilitakoa omen zara

Bai, herriren batean ikusi nuen mezatakoan oso gaizki kan-

tatzen zutela eta erabaki nuen Aroztegiko Perkaxenezarreko Juana Marirekin koru bat sortu behar genuela. Juana Maria Polido dugu kantuetan-eta dakiena, musikan nahiko jantzia. Eta horrelaxe egin genuen Atezko korua.

Eta orain igandetako mezetan, hiletetan... korua izaten duzue

Igandero, Atetzen meza bat izaten da. Lehen igandean Beuntzan, bigarrenean Eguaratsen, hirugarrenean Eritzen eta laugarrenean Beratsainen. Orain Pedro Ziordia dugu meza emalea eta Peraltako semea da. Hogeita hamar urte Estatu Batuetan egin ondoren, hemen dugu oraindik lanean, eta ez pentsa, badiu 86 urte!

Meza-ondore bikaina egiten omen duzue

Meza-ondorea oso berezia egiten dugu. 12-14 lagun biltzen gara, otamen baten inguruan, lehen Beuntzako ostatuan, irekia zegoenean; orain Aroztegiko Izarpe Kanpinean. Eta ondoren musean aritzen gara. Nik uste, asteko momenturik goxoena zaigula denoi ere. Apezak ere laguntzen digu otamenean baina laster alde egiten du, Seminarioan otordua ordu bata eta erdietan baitute.



(Hala izanen zen, baina, berez, her-tsi hori haritz ezkurra ereiteko izaten zen. Ondoren, bertan bi urtez hazitako landaretxoak zainetatik atera eta han eta hemen landatzeko. XVIII. mende-koa behar du izan, mintegiak orduan egin baitziren)

Berriz ere familiako kontuak

Non ezagutu huen andregaiak?

Malloetan ezagutu nuen. Iruñekoa zen eta bere lagun batzuekin joa-ten zen igandero. Han egin nituen ezagutzak eta elkarrekin hasi ginen

ateratzen. Malloetan egin nuen an-dregaia.

Hire andreak nola dik izena?

Alicia Ilundain Iturmendi. Aita Be-rrioigoitikoa eta ama Iruñekoa.

Eta Iruñetik Beuntzara etortzea ausartu huen

Bai, eta eskertzekoa ere bada, ez baita erraza beti Iruñean edo beste hiri batean bizitutako bat herri ttiki batean bizitzen ohitzea. Oso ongi moldatu da eta gara! Primeran!!! Oso gutxik egiten dute hori! Zaila

da eta eskertzekoa da, bai horixe!

Beuntzan bizitzen jarri baino lehen Atarrabian bizitu ginen, hiru urtez. Eta ondoren lurra erosi eta etxe berria egin genuen Beuntzan, **Itur-bidea** jarri genion izena, iturria-la-baderorako bidean baitago.

Hemen bukatuko ditugu Migel eta Aliciaren kontuak. Berriz ere luze baino lehen elkar ikusiko dugu-la-eta, agurtu eta alde egin dut Beuntzatik, gure alderdiko herri garaientetik.



Txurdan



▲ Atezko korua Beratsaingo San Kristobal Parrokiako elizan

Hiztegia

- **Puska biltzea:** ihote eta beste jai batzuetan etxex etxe ibiltzea puska biltzen. Puska, jatekoa. Puska lehorra izaten da, hau da, horretan ez da salda, zukua eta horrelakorik sartzen, urdaia, txistorra, solomo eta horrelakoak baizik.
- **Zozkatu:** sortear.
- **Garizuma:** Cuaresma.
- **Gurutze-bidea:** Via Crucis.
- **Urteberri:** día de Año Nuevo.
- **Arrakasta:** éxito.
- **Pikorra:** alea esaten dute Gipuzkoa aldean eta.
- **Morkotsa:** erizo de la castaña, erdaraz.
- **Ezagutzak egin:** norbait eza-gutu.
- **Ohitu:** acostumbrarse.
- **Oroitu:** acordarse.
- **Hiletak:** “funtzioak” funerales.
- **Otamena:** orain lunch esaten diote. Otamena, gure-gurea du-gun hitza da.
- **Garaia:** alto (hitz hau ia galdua dugu gure alderdian).



Zer ikusi

Amezti.eus

Urrian gure webguneko uzta ez da hain urria izan...

Hilero bezala, Esan Erran irratiko elkarrizketa, kolaborazio eta saio desberdinak entzungai daude amezti.eus agerkarian, baita eskualdeko agenda eguneratua eta aurreko Pulunpe aldizkarien PDFak ere...

Irratiko elkarrizketa kulturetak

Elkarrizketa interesgarriak izan ditugu hilabete honetan Esan Erran irratiko Egun Ero irratisaioan. Besteak beste, 80. hamarkadan Lizason egon zen 'Arco Iris' komunitatearen inguruko pelikula egin duen Irati Gorostidi zinemagilea elkarrizketatu genuen urriaren 21ean.

Irati Gorostidiri elkarrizketa



Horrez gain, beste pelikula bat ere hizpide izan genuen aste berean: 'Enarak' dokumentala, Frankismo garai betean euskaraz pop, rock eta psikodelia doinuak landu ziotuen musika taldearen ingurukoa. Imotzen, Erasoko Zaparen etxolan proiektzioa izanzen zela aprobetxatuz, Beñat Iturrioz zuzendaria elkarrizketatu genuen.

Beñat Iturriotzi elkarrizketa



Palestinako musikariak eta bluesaren damak, musika kolaborazioetan

Musikarik ez da inoiz falta Esan Erran irratian, eta ezta Egun Eroko kolaborazioetan ere. Katak kuir musika txokoa gidatzen du iaz bezala, eta Palestinako musikariak ekarri zizkigun azken kolaborazioa.

Baina, aurten, musikarekin lotutako kolaborazio berri bat ere badugu! Urriaren 23an estreina-

tu zen Oihana Fernandez Imozko abeslaria, 'Disidentziak musikan' kolaborazioarekin. Lehen atal honetan bluesaren damak eta AE-Betako 'minstrel' arrazistak izan ziren protagonista... ez galdu!

Palestinako musikariak kolaborazioa



Bluesaren damak eta 'minstrel' arrazistak





Aizarozko eta Aritzuko gonbidatu bana, Egun Ero Kantuz-en

Ostiraletako gure saio berezian azken asteetan izan ditugun bi gonbidatuak ere aurkeztu nahi dizkizuegu: urriaren 10ean Gorka Ramirez Cachafeiro aizaroztarra izan genuen gurean, bere bizitzaren inguruko ibilbide musikatuan. Urriaren 24an, berriz, Amaia Urdaniz Ostiz aritzuarra izan zen

Esan Erraneko estudioan. Gustura aritu ginen biekin!

Gorka Ramirez




Amaia Urdaniz



Memoriaren txokoa: ur-pribatizaziorik ez

Bukatzeko, urriaren 17an emititu genuen Memoriaren Txokoa saioa ezin aipatu gabe utzi... Irlandan txorroteko ura pribatizatu nahi izan zutenekoa ekarri genuen. Noski, erresistentzia mugimendu zabala piztu zen Irlanda osoan...



MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK



KARIKOLAR
ELEKTRIZITATEA

722 766 835

LIZASO · karikolaregoitz@gmail.com

Manu Alvarez: “Baziren bizikleta bi edo hiru orduz bizkar gainean eraman behar ziren etapak, goraino”

Manu Alvarezek lau eguneko Piriniotako enduro *Trans-Nomad* proba irabazi du elektrikoko kategorian, mota guztietako oztopoak-oztopo. Lau eguneko proban 160 kilometro egin eta 9.000 metro igotzen dituzte. Proba gogorra da Piriniotakoa, Europako garrantzitsuenetakoa

Absolutuan lehiatu behar zen baina hasi eta egun bat lehenago erori eta bizikleta hautsi zuen. Horrela, azken momentuan bizikleta elektriko bat lortu eta E-bike kategorian parte hartu ahal izan zuen. Bizikleta elektrikoak lagundu egiten du zenbait gauzetan, baina oztopo ere izan daiteke: “*Trans-Nomad* lasterketan mendi altuenetara igotzen da, 2.600-2.700 metro, eta hori igotzeko bizikleta bizkar gainean eraman behar da, baziren bizikleta bi edo hiru orduz bizkar gainean eraman behar ziren etapak, goraino”. Eta elektrikoak franko pisatzen du, gainera. Ez da zailtasun bakarra izan, denetarik pasa zaio: akats elektronikoak, aldagailua apurtzea, gurgila zulatzea... horregatik, tramo batzuk ere oinez egin behar izan ditu, bizikleta bultzatuz. Eta, hala ere, irabazi egin du.

Lau eguneko proba, zer gehiago du berezia?

Izenak berak dioen bezala nomada gisa toki batetik bestera joatea da. Urtero ibilbidea aldatzen da, lehengo urtean Bielsa bailaratik barna egin zuten eta aurten Benasquen eta Val d'Aranen. Lasterketaren bereizgarri bat da mendi altuenetara igotzen dela, 2.600-2.700 metrotara igo ginen eta hori igotzeko bizikleta bizkar gainean eraman behar da, baziren bizikleta bi edo hiru orduz bizkar gainean eraman behar ziren etapak, goraino. Bestetik, berezia izan da denok elkarrekin goazela goraino. Taldeak itxoiten du (jaitiera eta tramo

“Nahiko harro nago eduki nituen arazoak edukita ere beti jarrera positiboarekin hartu nituelako eta eutsi niolako”



kronometratuetan neurtua izaten ari denari). Hori asko gustatu zitzaidan, lagun talde bezala korritzen delako.

Behintzat ez zoaz bakarrik, proba gogorra izanen delako, ezta?

Hori du ona, jende ezberdina eza gutzen duzula eta animoak ematen dizkiozu bata besteari. Modu horretan errazago egiten dira goerak.

Irudietan ikusten den bezala, momentu gogorak izanen ziren, bizikleta gainean, baina, hala ere, paisaiak, ederrak!

Bai, paisaiak, latzak. Aurretik eza gutzen genituen, baina lasterketan inguru horiek egiteko aukera izatea benetan ederra izan zen. Bigarren eta hirugarren etapa artean Aneto mendilerroari buelta guztia eman genion

eta ederra izan zen Aneto toki guztietatik ikustea.

Europako mendi bizikleta probarik garrantzitsuena dela ere irakurri dut, horrela da?

Bai, modalitate honetan fama handia hartu du. Zortzigarren edizioa da eta badira beste proba batzuk baina honek gogorra izateagatik eta inguruarengatik fama handia hartu du. Aurten Europa osotik eta Estatu Batuetatik ere etorri da jendea. Coloradoko parte hartzaileak, Zelanda Berritik etorriak, Noruegatik... denetik egon da. Gehienak Estatu mailakoak dira baina mundu osoko jendea ikusi daiteke.

Eta, hala ere, 90 ziklistendako toki besterik ez dago. Zaila da izen ematea?



Mugaturik dago. Azkenean, gune sensibleetan egiten den lasterketa da, mendi altuetan. Antolatzaileek esan zigutenez arazoak izaten dituzte bai-menak eskatzeko eta horregatik limitazio hori jartzen dute. Izen ematea lau ordutan agortzen da. Ni gonbidatua izan nintzen. Orbea bizikleta marka da probako patrozinadore nagusia eta ni enbaxadore moduan gonbidatu ninduten, barrutik esperientzia kontatzeko. Lehenengo aldia izan da. Duela urte pare bat apuntatu nahi nuen baina orduan bertan behera gelditu zen, antolatzen arazoak izan zituztelako, eta etortzeko gogoekin nengoen.

Eta, irabazi duzu, ez absolutuan, baina bai E-bike kategorian.

Bizikleta elektrikoarekin parte hartzen dutenendako kategoria da E-bike. Hor kontuan izan behar da enla-zeak egitea guri errazagoa egiten zitzaigula, pedaleatzerakoan, baina portuetan bizikleta bizkar gainean eramane behar zenean kilo franko gehiago dira. Hasieran bizikleta normalarekin parte hartu behar nuen baina egun bat lehenago Benasquera joan ginen probak eta bideak ikusteko eta eroriko kozkor bat izan nuen. Bizikleta ez zen korritzeko moduan gelditu. Azkenean aukera izan nuen beste bizikleta bat lortzeko, elektriko, eta horrekin korritu nuen. Dena den, zorte txarra edo ona, azkenean ez dakit zer izan den, gauzak ongi aterra direlako. Baina pena eta arantza horrekin gelditu naiz.

Elektrikoa ez zen bizikletarekin prestatuko zinen, gainera. Kalte egin zizun? Emaitza ikusita ematen du ezetz.

Entrenoak nire bizikletarekin egin nituen, baina egia da, bestetik, uda guztia bizikleta elektrikoarekin eman dudala, ibilbide gidatuak egiten eta eskua hartua niola. Batarekin edo bestearekin gozatzea zen inportantea.



Sailkapena, E-bike kategorian:

1. Manu Alvarez: 29:03.08
2. Mario Costa: 30:51.41
3. Dominik Rinkers: 31:00.30

Aukerak zenituela uste al zenuen edo garaipenak sorpresaz harripatu zintuen?

Lehenengo egunean nire helburua erritmoa hartzea zen eta sailkapen orokorrean nire maila ikustea. Bigarren tramoan gorpila zulatu nuen eta bizikleta eskuetan harturik korrika egin behar izan nuen, denbora gehiago galdu behar nuelako gorpila konpontzen. Egunaren bukaeran 15. nindoala ikusi nuen baina zenbait tramotan hirugarren eta laugarren ibili nintzela, eta hurrengo egunetan abiadura gehiago sartzea erabaki nuen. Val d'Aranera jaisteko kristoren lasterketa egin nuen eta 15. postutik lehenengo postura pasa nintzen. Arazo mekaniko asko izan nituen eta hor egon ginen lehenengo eta hirugarren postuen artean. Azkeneko etapan lortu nuen berriz ere lehenengo postuan sartzea eta oso pozik. Espero nuen baina beti duda hori zegoen, arazo mekaniko gehiago izanez gero... edo zer gauza pasa liteke.



Paisaia ederrak

“**Elektrikoarekin edo bestearekin gozatzea zen inportanteena**

”

Denetarik pasa zaizu, beraz!

Bai, lehenengo nire bizikleta puskatu nuela; hurrengo egunean, elektrikoan, motorrak akatsa eman zidan eta eguneratu behar izan nuen; ez nekien zer pasatuko zen eta bizikleta bultza eta tira eramane behar izan nuen. Hirugarren etapan abiadura aldagailua (*cambio*) puskatu nuen eta bigarren tramo kronometratutik bukaera arte aldagailurik eta katerik gabe egin behar izan nuen, pedaleoa tokatzen zenean, bultzaka. Hornidura gunetik azkeneko tramo kronometratuta 10 kilometroko lotura bat korrika bizikleta bultzatuz egin behar izan nuen. Burugogorra naiz gero!

Hainbeste arazo eta, hala ere, irabazi!

Etxean irakatsi digute beti aurrera egin behar dela pasatzen dena pasatzen dela ere, jarrera onarekin. Eta nire buruaz nahiko harro nago egia esanda, eduki nituen arazoak edukita ere beti jarrera positiboarekin hartu nituelako eta eutsi niolako.

Esperientziatik zer nabarmenduko zenuke?

Izugarrizko familia giroa dagoela. Antolakuntzaren aldetik eta parte hartzaileen aldetik ere oso giro sana dago, asko laguntzen diogu elkarri.

Buru, burute eta anderete

Ez ibili burumakur



Artikulua laguntzeko kanta bat. Irakurri QR-a eta entzun.

Nahi nuke jakin zuetako zenbatek dakizuen hitz hauen esanahia; **burute** eta **anderetez** ari naiz, jakina. Burutea ez da orain inoiz erabiltzen eta, hortaz, horren esanahia ere ia inork ez daki.

Nik ttikitan ezagutu nuen burutea eta hortaz dakit zer den burutea. Anderete, berriz, gizon dutakoan ikasi nuen. Fotografian ikusiko duzu horren esanahia.

Jendeak uste izaten du hitz bakoitzak esanahi bat duela, baina hitz askok esanahi asko izan ditzake eta, ez ustean ere, jendeak esanahi

horietako asko badakizki, hau da, ez da ohartzen baina uste baino gehiago daki jendeak. Etxean eta karrikan euskara ikasi duenak uste baino askoz ere gehiago daki.

Bigarren tituluan jarri dut ez ibiltzeko **burumakur**. Zahar zenbaitek uste du euskaraz gaizki dakiela, horrela ez denean. Inork adina dakizue euskaraz. Izugarri dakizue euskaraz etxetik ikasi duzuelakoz. Etxea dugu lehenbiziko eskola, oinarritzakoa. Etxean ikasten da hizkuntza eta beste gauza asko. Inportanteenak, eskolan inola ere ikasiko ez ditugu-

nak asko eta asko. Ez baitute inoiz erakutsi, erakusten eta erakutsiko. Etxea behar beharrezkoa da. Nahi eta nahiezkoa.

Gora burua eta eutsi gure hizkuntzari!

Eta eutsi zaiozu zure itxai eta zure herri ttiki horri! Eta eutsi guziona Euskal Herriari!

Goazen denok ardo bizkorrarekin topa egitera. Kantatuz, kantatuz: gu euskaldunak gara, Euskal Herrikoak!

 Txurda

andequiera. Adv. Dondequiera, en cualquier parte. *Andequiera que fueres, haz lo que vieres. Ese, andequiera encontrará trabajo.* (De uso casi general.)

anderete. Hormiga hembra con alas; hormiga aluda usada como cebo para cazar pájaros. [Pamplona, Cuenca, Aoiz, Añorbe.] Proviene del vasco *andrea*: señora. En Tudela la llaman *aláica*. Véase *aláica*. En Tierra Estella, *andrete*.

anderías. En Villamayor de Monjardín, cantaban los chicos, el día de Jueves gordo, cuando iban pidiendo por las casas: «Jueves lardero -no comerás cordero- ni al otro ni al otro- ni al iua»

Anderete, Jose Maria Iribarren **Vocabulario Navarron** (1952) agertzen den hitza.


2 iz. Zorabioa. Berehala burtzoroa! Ik. zentzurik.
3 iz. Abere xeheen burmuinean kokatzen den har batek eragiten duen eritasuna. Noiznahi hartzen du burtzoroak *ardia* eta laster ezindurik hiltzen du.
burtzuntz iz. [Oharra: Euskaltzaindiak, burtzuntz-ek euskara idatzian izan duen erabilera kontuan harturik, forma hori ez erabiltzea gomendatzen du; ik. **burzuntz**].
buru 1 iz. Gizakiaren edo animalien gorputzaren goiko edo aurreko zatia, ahoa eta zentzumenak kokaturik daudena. Zezen *burua*. *Burua* estaltzeko. Adarrak, zenbait gizasmeren *buru-kopetak* zinetan eta benetan apaintzen dituzten edergarri horiek. *Burua* (apustu) egingo nuke berandu hiltzen dela. *Buru gaina*. Burt Lancaster *buru-urdirak*. Gizon *buru-luzea*. Gizon iletsu *buru-beltza*.
2 iz. (Esapidetan). Inori *burutik* behera kaka egin: iseka larria egin. Norbaitek *burua* lehengo lepotik, betiko lepotik izan: iritzieta, ohituretan ez aldatu. Zerbaitek *burutik* ez hankarik, *burutik* ez buztanik ez izan: zentzugabea, itxuragabea izan. Jakinduriaz eta sakontasunaz diozunak ez du ez *burutik* ez zentzurik. Besteren buruan zentzatu, ikasi.
3 iz. *Burua* adimenaren eta oroimenaren iturburutzat hartua. Bihotz euskaldunaren eta buru erdaldunaren arteko borroka amaigabea. Haizea buruan eta ibili munduan. *Buru-loka* izan: buruarina izan. *Buru gogorra* duen gizona (Ik. **burugogor**). Gaizki egin dudala ezagutzeko adina *buru badut*. Norbaitek *buru argia* izan. *Buru argikoa* izanik, argi jabetu zen asmo horietaz. Urrestarazu jaunaren adorea, kemena, *buru jantzia* eta bihotz kartsua. Norbaitek *buruan gatz* izan: *buruargia* izan. *Burua oso duenak*: zoratuturik ez dagoenak. *Buruak huts egiten* ez badit. Zerbaite buruan, *burutik pasatu*. Filologoarentzat zail eta *burunekagarri* izan ohi diren hitzak. *Buru-berotzaileak*.
4 iz. Gauzaki baten mutur zabala edo biribila. (punta-ren aurrez aurre). Ik. **buru orratz**. Ilte, torloju baten *burua*. *Orratz buru-zuria*.

Euskaltzaindiaren

Hiztegiatik atera dudana fotografia. Hemen 4 esanahi ageri dira baina 13rekin dago hiztegiaren. Eta **Buru** hitzarekin sortutako esanahiak, *burua* berotu, *burutik* egon, *burutik* hanketaraino... zenbat? Ez ditut kontatu, baina bi orri eta gehiago behar izan ditu denak sartzeko. Horietako asko eta asko badakizki etxean eta karrikan ikasi dituen euskaldunak. Edo eskolaz gain, entzunez eta irakurritz-irakurritz ikasi dituen euskaldun berriak ere bai.

Prestakuntza erraza,
doakoa eta zure neurrira

kliko.navarra.es






Martxan gara berriro!

Irailaren erditik aurrera, Ostiral Kulturalek beren ohiko martxa berreskuratu dute, eta orain neguko zinema-zikloa eta irakurketa-klubak gehituko zaizkie

Ostiral Kulturaleen programazioari dagokionez, Juan Suarezek eta Pello Varela Pamiela argitaletxean argitaratutako komikiari buruzko erakusketa interesgarri batekin hasiko gara. Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* eleberrian oinarrituta dago. Azaroaren 14ra arte egongo da erakusketa gurean, Larraintzarko bentako sarreran.



Hileko lehen ostiralean, hilaren 7an, literaturari eta liburuari lotutako jarduerekin jarraituko dugu, kasu honetan *Con pena y gloria* ikuskizunarekin, Gloria Fuertes biziaren eta haren poesien zehar egindako ibilbidea dena. Bidaia emozionala, emakume hauskor batekin, bere denbora bezala; indartsu, bere abizena bezala; eta beste ezeren gainetik sentibera, bere poesia bezala. Konprometitua, poeta herriarentzat,

poeta haurrentzat, poeta zaharrentzat. Bertso itxuraz sinpleak, asko irakasten zutenak. Gloriaren bizitza eta denbora 60 minututan. Bere mundua eta gurea hobeak egin zituen emakumea. XX. mendearen bigarren erdiko ibilbidea, askotarikoa eta dibertigarria, Gloria bezala. Abestiak, ipuinak, pasadizoak, malko eta doluren bat... Ikuskizuna helduei zuzenduta dago, baina, Gloria Fuertesenez, ezin diegu hurrei sarrera debekatu, beraz, haiek ere ongietorriak ere izango dira. Musika-akonpainamendua izango du eta Iluna antzerki taldearen eskutik eskainiko da, azaroaren 7an 19:00etan, Larraintzarko Bentan.



Hurrengo ostiralean, azaroaren 14an, jarduera erakargarri bat berreskuratu dugu, irailean atzeratu zena. Gaztetxoekin LGTBIQA+ eta

genero gaiak lantzeko scape room saioa, diziplinarteko ikuspegi batekin. Haurrak modu dibertigarri eta liluragarri batean aniztasun sexuala ulertzea, nola guztiok berdina garen desberdina izanda onar ditzakegun. Garrantzitsua da gogoratzea liburutegia@ultzama.es liburutegiko postan PLAZA ERRESERBATZEA NAHITAEZKOA DELA. Azkar ibili, plazak mugatuak dira eta!



Hilaren 21ean, azaroaren 25arekin, indarkeria matxistaren aurkako nazioarteko egunarekin, lotuta egongo den hitzaldi oso interesgarri izango dugu: "Botere-harreman berriak bikote gazte heterosexualetan". Insta-



gram eta Tik Tok kasua San Martin de Unxen. Gazteen harreman afektibo-sexualen prozesuak ulertzen. Rut Iturbide Rodrigorekin.



Eta azkenik, 28an, *ONGI ETORRI*, helduentzako ipuin kontalari entretenigarri eta mamitsuarekin itxiko dugu hilabetea, musika eta guzti. Hau xe da Amaia Elizagoien eta Itziar Olague protagonistek kontatzen digutena: "Gure herriko tabernak 'Ongi Etorri'bizena zuen. Bi ahizpen artean eramaten zuten bertako martxa. Mundua 'Ongi Etorrin' hasi



eta bukatzen zen aunitzentzat. Barraren bi aldeak ezagutu nituen nik. Bertatik, ez ziren bezeroak bakarrik igarotzen, istorioak ibiltzen ziren dantzan eta gu haiekin hazi ginen. Bertan, ikasi genuen zer zen emakumeen arteko elkarlana, zaintza eta ohartzerako gure izaera feminista bertan eraikitzen hasi ginen.

Viola eta teklatuarekin lagundutako kontakizun honen bitartez, gurekin bidaia bat egitera gonbidatu nahi zaituztegu, txoko txiki bateko unitbertsoa ezagutzera eta barrenak astintzera".

Zinema eta irakurketa

Bestalde, dena ondo badoa, azaroan neguko zinema zikloa berreskuratuko dugu, iaz hain harrera ona izan zuena. Oraintxe ari gara pelikulak aukeratzen, baina, gogorazten dizuegu: azarotik-otsailera, igandero, arratsalde, pelikula on bat ikusi ahalko duzue pantaila handian.

Eta, amaitzeko, liburutegiko irakurketa-klubetan irakurtzen ari garen bi liburuetakoko bat gomendatuko dugu (parte hartu nahi duenari zabalik daude bi klubak, gaztelaniazkoa eta euskarazkoa; izena eman dezakezue email honetan: liburutegia@ultzama.es. Oraingoan gomendatzen dugun liburua euskara klubarena da: Irati Jimenezen "Nora ez dakizun hori". 2009. urtean argitaratutakoa eta Igartza sariko akzesita eskuratu zuena. Idazlearen bigarren eleberria da, *Bat, bi, Manchester ondoren*. Bi istorio lotzen ditu: alde batetik Martin argazkilaria, munduan zehar argazki misteriotsuak egin ondoren, itzuli eta gauero irratiprograma bera entzuten duen Elias kazetariaren etxean bizi dena; bestetik, Nora, irratiesataria, bizi izan duen bizitza gogorraren amaiera gertu duen amonaren etxean bizi dena eta ama berarekin haurdun zegoela istripuz hil zitzaiona. Bi istorioak lotzen joango dira kontakizunean zehar, likantropo baten istorioak tarteko. Maitasun ezinezkoak eta kasualitate gertagaitzak topatuko dituzu eleberri honetan, likantropoak eta banpiroak, arima erosten duten aingeruak, ama hil ostean jaioetako haurrak, magoak, bidaia, ipuinak... Pasioz eta liluraz beteriko liburua, jario hordigarri batez idatzia, amodio debekatuek bezala utzi ezinezko sorginkeriaz lotuko zaituena.

 Patxi Irurzun



2025eko irailean gure alderdian izan ziren jaiotza, ezkontza eta heriotzak:

Jaiotzak:

IMOTZ

Eraso

Uhaina Areso Fernandez de Muniain, irailaren 23an jaio zen **Dorrean**. Eneko eta Alazneren alaba.



▲ Uhaina, ongi etorri!

LANTZ

Elene Etsain Dorregarai, Ander eta Martaren alaba, irailaren 12an sortu zen **Apezetxean**.



▲ Hemen dugu Elene

“Aupa bat gure gurasoei!”

Ezkontzak:

ULTZAMA

Arraitz

Asier Jaunsaras Migueltoarena, **Ferminenekoa** eta Olaia Echeconanea Bildarraz, Beintza-Labaiengo **Otxonekoa**, irailaren 6an ezkondu ziren.



▲ Asier eta Olaia

“Zorion guzia ezkonberriei!”



Ametzaren txokoa

Zozketa mundiala, urtarrilaren 4an


Ametza Kultur Elkartea ari da beste urte batez dena prestatzen Zozketa mundialerako. Aurten, ohi baino pittin bat lehenago izanen da, errege gaua baino lehen. **Urtarrilaren 4an** izanen da, igandearekin, eta arratsaldeko 16:30ean, Esan Erran irratian, zuzenean.

Boletoak, honezkero salgai dituzue eskualdeko ostatueta. Gainera, eskualdeko herritar anitzek laguntzen dute takoak saltzen, beraz, ziur gertu duzuela txartelak salduko dizkizuen norbait.

130 sari inguru banatuko dira, tartean, hamar zerri gizen eta axuri. Haiekin batera, hamarnaka saskitto eskualdeko produktuekin, bazkari bikoitzak, asteburuko bidaiak eta gaztak. Erosi zuen txartelak eta zorte on!

Dakizueenez, zozketa **izugarritzko laguntza** da eskualdeko euskarazko hiru hedabideak babesteko: Pulunpe aldizkaria, Esan Erran irratia eta Amezti agerkari digitala.

Mila esker!



2025eko
Zozketa
mundiala

GOTELET-A
KENTZEA

FATXADAK
ZAHARBERRITZEA

IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)

DAVID ELIZONDO PINTURAK

DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

KALITATEA
ETA
GARBITASUNA

AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



2025eko Zozketa mundiala

Sarien zerrenda
Lista de premios



x3

Asteburuko bidaiak 2
lagunentzat

Estancias de fines de
semana para 2 personas



x3

Elgorriagako bainu etxean
asteburuko egonaldiak

Estancia de fin de semana en
el Balneario de Elgorriaga



x2

Landetxetan
egonaldiak

Estancias en
Casas Rurales



x 20

Bazkari edo afari bikoitz
(inguruko ostatuetan)

Comidas o cenas para dos
(en las posadas locales)



x10

Txerri gizen

Cerdos gordos



x10

Axuri eder

Hermosos corderos

8 Esneki sorta / 8 packs lácteos

30 Saskitto / 30 Saskitto

25 gazta / 25 quesos

Eta... beste anitz sari / y... un montón de regalos más